

## HERRIAK MIN

---

**B**adaukat lagun bat, sarritan kexa berdinarekin azaltzen dena, hau da, herri honek "martxa kaxkarra duela; grafikoki dioenez, kasta falta zaio. Bera ez da Lezon jaioa eta, egia esan, mugitzen den horietako tipoa dugu, eta gustatzen zaio Lezoko martxa eta bere herrikoa konparatzea. Noski, bere herkieek mila eta hamazazpi buelta ematen dizkigute. Baliteke arrazoi pixka bat ez faltatzea baina iruditzen zait bere herria idealizatzen duela konparaketa horretan. Azken finean, eta nik baino hobeto jende askok adieraziko lukeen arrazoiengatik, egia da inmigrazio handia izan duen herri batean bizi garela; baita ere, lezoar pila batek gure herrian lo besterik ez duela egiten, eta gainera, Donostia, muga eta Orereta bertan egonda, tentazio handi xamarra daukate batez ere gazteak, herriatik kanpo ibiltzeko.

Hala ere, nahikoa da edozein arratsaldetan gure kasko zaharretik ibiltzea, kolore guztietako militante multzo batzuekin (normalean 3 edo 4 lagunez osatutakoa) topatzeko. Hortxe dabilta, pazientzi eta metodoarekin, bere lana hormetan, buzoietan, mahaietan, bileretan edo propaganda zabaltzen betetzen dutelarik. Hauek, noski, ez dira gero egunkari edo telebistan azaltzen diren horietakoak; suerte pixkatekin bere argazkia komisaldegi batean azalduko da auskalo zein saltsako susmagarri bezala.

Urte bukaeran afaritxo bat antolatuko dute, bere patrikatik ordainduta, noski. Ziur nago ez dagoela horrelako militanterik gabe ongi funtzionatu dezakeen organizaziorik, eta nahiz sarritan fanatiko, ero edo manipulatu gisa hartuak izan, hor jarraitzen dute beraiek jo eta ke bere gauzei eutsiz. Bejondaizuela, militanteok! Nere txaloe zuentzat zein koloretakoak zareten aztertu gabe. Merezia duzue.

– Hasierako harira itzulita, nik esango nuke geure herrian gero eta gehiago ari dela ugaltzen horrelako jendea eta hori ona da, gizarte osasuntsu baten seinale.

Hala ere, dena hain goxoa al dugu gure Lezo honetan? Badira, bai, gauza ilunagoak gure artean, eta hortik dator idazki honi jarritako izenburua.

Batzutan, bakarrik batzutan, agian sarriegi, herri honek min egiten dit.

Zergatik, adibidez, edozein taldearen agerpen baten aurrean, oso erraza egiten zaigu "letxe txarreko" iritzi deskalifikanteak entzutea, eta nekez aurkitzen ditugu laudo nabarmenak? Norbaitek pentsatuko du asunto honetan nahiko ikuspegi ezkorra azaltzen dudala edo hori oso normala dela, edo agian, horrelakoak entzuten ditudala bila joaten naizelako. Hauxe bakarrik esango dizuet: ez naizela atzo jaioa, horrelako gauzak gertatzen direla, eta uste dudala posible zitekeela ez gertatzea.

Akaso ez da egia jende askok pentsatzen duela zerbait ongi esana edo egina dagoela jakiteko, lehenik begiratu behar dela nork egin edo esan duen hori? Praktikan, edozer gauza ona edo txarra izango da geureak edo "besteak" egina den arabera; egia baita jendea era horretan sailkatzen dugula.



Goazen orain beste adibide konkretuago batzuekin:

a) Txerrimunoko gazteek Lezon 400 etxebizitza hutsik daudela salatzen dute, kartelak jarri eta denda eta guzti, gaupasa bat egiten dute plazan. Ia ez dago alokatzeko etxe bizitzarik eta hor dauzkagu 30 milioiko etxeak eraikitzen.

– Entzuten dena: “Hobe lukete lan egitea, dirua aurreztea eta ez uztea utzi duten bezala gurasoen etxea. Alfer hutsak dira!”

b) Lezoko BAK (Gesto por la Paz)-ekoek, ixilune bat antolatzen dute plazan, 15 minutuz pankarta eta guzti, biolentziaren ondorioz izandako heriotz baten biaramonean.

– Iritzi bat: “Hor daude berriz ‘meapila’ horiek. Judas baino faltsuagoak dituk”.

c) Lezoko ekologi taldekoek, babestutako hegazti baten hilketa salatu eta Santo Kristoko atean uzten dute hildako txoria.

– Komentarioa: “Horiek ekologistak direla? Beraiek ematen ziotek sua mendiari drogaz beteak daudenean eta...”.

d) Gazte-Herriko neska-mutilek Ruandari laguntzeko I.era eta txakurrak osatutako ikuskizuna antolatzen dute Lezotik pasatzen direnean; edo euskaraz eta erderaz argitaratzen dute agerpen bat.

– Entzundakoa: “Hori bai dela espainolada! Baina, zein munduan bizi dira hauek? Eta bai lotsagarria erabilitako euskara!”

Noski, ez dira molestutzen euskara eskaxagatik barkamena eskatuz eta aldaketa aginduz kaleratu duten idazkia irakurtzen. Zertarako? Bost axola, udaletxeko itzulpen zerbitzuak egin dieten kalteagatik.

e) “Lezo” aldizkaria argitaratzen da eta (koño, harrigarria!) laudoak besterik ez.

Txerrimuñoako “Zartako” ateratzen da (nere iritziz oso ondo landuta gainera), eta ea zer entzun dugun:

– “¡Jodé encima me lo querían vender, tú!”

Eta era horretan aritzen dira/gera intsumisoekin, irratizaleekin, Zabarrekoekin, Amnistiaren Aldeko Batzordearekin, AEK'koekin, mezetara joaten direnekin, joaten ez direnekin, PSOE'koekin...

Argi dago tolerantzi falta nabarmena dagoela; jakina, gauza hauek gertatzen dira beste herrietan ere, eta neurri batean nahiko naturalak dira, eta agian, sanoak ere; hala ere, iruditzen zait sanidade neurri hori oso atzean geratu zaigula.

– Eta zer egin dezakegu?

Seguraski ez da faltako inozo bezala hartuko nauenik; beste batzuei oso azaleko analisi dela irudituko zaie, eta norbaitek ere, gilipollas bat naizela esango du gauza.



Hauek aireatzeagatik. Kontuak kontu, nik oraindik gizakiarengan sinisten dut eta ziur nago egoera hau hobetzeko zerbait egin genezakela.

Azken bolada honetan, adibidez, Euskadik jasaten duen biolentziari buruz, asko ari da hitzegiten, eta jende arruntaren artean aldaketa handiak izan dira; astiro baino sakonki, ideia batzuk nagusitzen ari dira; hau da, herrien eta gizakien eskubidetan oinarriturik, adostasun minimo batera iritsi gaitzekela espiral alu honetatik irteteko; ezin dugu orain arte bezala jarraitu eta bide berriak jorratu behar ditugu. Agian ez dakigu zer egin, baina bai dakigula zer ez egin. Ausartuko al gera dialogatzen, barkatzen (ahaztea ez da posible), negoziatzen, toleratzen? Benetako pakea (ez beldurrarena, justiziarena baizik) eskuratze-ko gogo baldin badugu, aurrerapenak lortuko ditugu; gogo hori itxurazkoa bada, asko hitzegiten duen horietako bat baino gehiago ipurdi ageri geratzea eta benetan den bezala azaltzea espero dut. Denbora lekuko.

Estilo honi jarraituz, ez ote da posible izango gure artean bilatu eta aurkitzea, dauzkagun ikusiezin horiek baretzeko, herri mailako adostasun minimo bat? Beharbada, udaletxe bertatik hasi beharko genuke. Ez ote dira balore batzuk, intentzio txarrik gabeko edozein pertsonak erraz onar ditzazkenak (giza baloreak direlako)?

Agian egokia litzateke Lezoko erakundeen koordinadora bat potentziatzea, guztiz irekia noski, etika aldetik partaide guzientzako arau batzuk finkatuko lituzkena, batez ere idatzi, agerpen edo manifestazioetan erabiltzeko. Bertan, batzorde iraunkor bat egongo litzateke sor lezazken istiluak aztertzeko. Baita ere, urtean zehar debateak antolatu eta ugaltzea ez legoke gaizki.

Beno, uste dut gauza asko egin daitezkeela ideia horietan sinesten badugu. Seguru asko, denok egin beharko genuke lan gehiago eraikitzen desegiten baino.

Bitartean, herri honek noizbehinka niri min egingo dit. Eta, agian, nik ere herri honi, batzutan min egiten diot.

**ANTONIO MARI**

